



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## Prentsa-oharra

---

# Ogasun eta Finantzetako Saila eta Lehendakaritza Saila hasi dira 2013. urteko aurrekontuak Batzar Nagusietan azaltzen

### Bilbon, 2012ko azaroaren 23an

José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako Foru Diputatu jauna eta Juan M<sup>a</sup> Aburto Lehendakaritzako Foru Diputatu jauna izan dira lehenengoak Bizkaiko Batzar Nagusien egoitzan batzorderatu eta azaltzen Foru Aldundiaren 2013. urteko Aurrekontuen Proiektuaren arabera bakoitzaren Sailari jagokon aurrekontuaren nondik norakoak. Batzordeotariko lehenengoa Ogasun eta Finantzetako Sailari buruzkoa izan da. Batzorderatzea Bizkaiko Foru Aldundi osoaren aurrekontuei buruzkoa izan da batez be, Aldundiaren Jaurtze-Batzarrak azaroaren 15ean egindako bilera berezian onartutako proiektuan oinarrituta.

José María Iruarrizaga Artaraz Ogasun eta Finantzetako Foru Diputatu jaunak azaldu egin deutse Batzar Nagusietan ordezkariak daben Batzarkide-Taldee 2013. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arau Proiektua. Diputatu jaunak adierazotakoaren arabera, urtekitaldi “gogorra eta doiketez beterikoa” izango da, beti be gizarte ekintza, lanpostuak sortzea eta inbertsino publikoa lehentasunak izanik. Guztirako aurrekontua (konpromisoak eta kudeaketa propioa) **6.578,4 milioi eurokoa da**, 2012. urtekitaldikoa baino **%4,3** murriztagoa.

Kapitulu horren barruan berariaz aitatzekoak dira, batetik, Kupoak izan dauen igoera handia, egin-eginean 406,5 milioi (2012. urtean baino %81,2 gehiago) eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzarentzako ekarpenak —3.985,7 milioi— aurreko urtekoagaz alderatuta %7,8ko murrizketea izan dauena. Aitagariak dira be Batzar Nagusien partideak aurreko urtekitaldian gerakinak baliatu zituanenez 2013.ekoan gora egin dauela, 7 milioira heltzeraino; eta udal finantziaketarako partidea, 743,4 milioikoa, 2012. urtean baino %6,3 gitxiago izango dala. Sailen artean, Gizarte Ekintzak, Ekonomi Sustapenak eta Herri Lan eta Garraioak dabe izendapenik handiena (%78,3).

Ahaldun Nagusiak berak daborduko iragarri dauen moduan, 123 milioi euro gitxiago izan arren, Bizkaiko Foru Aldundiaren hurrengo urtekitaldirako jardunak bost lehentasun handi izango ditu: **ekonomi zuhurtzia eta aurrekontu egonkortsuna**, zorra igon barik; **gizarte ekintza**, pertsonen bizi kalidatea bermatzeko; **lanpostuak sortzea**, berariazko indarra eginez merkatu barrietan eta enpresa txiki eta ertainei, autonomoei, ekintzaileei eta gazteei laguntzean; **oinarrizko zerbitzu publikoak mantentzea**; eta **obra publikoan egindako inbertsinoa**, ekonomia berrindartzearen suspertzaile moduan, horren barruan sarturik proiektu estrategikoak finantziatzea eta martxan dagozan lanakaz jarraitzea.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

Era berean, murrizketa-neurrien artean gogotara ekarri behar dira soldatak izoztea, zor publiko gehiago ez jaulkitea, tasa eta prezio publikoak %2 igotea eta proiektu estregikoetako lanak amaitzea, esaterako San Mames inguruko EHUKo Kanpusa (-13,5 milioi euro) eta Euskalduna Jauregiaren zabalkunde lanak (-10 milioi euro).

### **OGASUN ETA FINANTZETAKO SAILA**

Iruarrizaga jaunak Ogasun eta Finantzeta Sailaren aurrekontuaren inguruko azalpenak be emon ditu. Guztira 122.970.515 euro ditu aurrekontuan. Beste proiektu batzuen artean, azpimarratzekoak dira Bilboko La Casilla ondoan egoan Injenieritza Eskolako eraikina erasteko lanak eta San Mames Barriarenak. Asier Arana batzarkidearen galderei erantzunez, Ogasun eta Finantzeta Foru Diputatuak berretsi egin dau Aldundiaren parte hartzea proiektu horretan, bere garaian San Mames Barriaren bazkideakaz hartutako konpromisoaren arabera.

### **LEHENDAKARITZA SAILAREN AURREKONTUAK**

Bere aldetik, Bizkaiko Foru Aldundiaren Lehendakaritza Sailak 25,3 milioiko aurrekontua izango dau 2012. urterako, Juan María Aburto Sail horretako arduradunak azaldu dauenez.

Aurrekontu horren zatirik handiena Aldundiaren beste Sail batzuei eskainitako zerbitzuetarako da (parke mugikorra, zerbitzu juridikoak edo langileen prestakuntza), edota Bizkaiko udalei aholkularitza emoteko, suhiltzaileen parkeetarako eta administrazioaren barrikuntzarako, batez be administrazio elektronikoa martxan jarteari jagokonetan.

2013. urterako aurrekontu erabilgarria gitxitu egin dan arren (zortzi milioi euro gitxiago dagoz), Aburto jaunak esan dau administrazioa hobatzea eta barrizatzea lehentasun izaten jarraitzen dauela, herritarrei eskainitako zerbitzua “administrazioa ondo joatearen pentzu dago-ta.”

Atal horretan partida garrantzitsua dago teknologia barriak administrazioan sartzen jarraitzeko, hain zuzen be herritarrakazko hartu-emonaren errazagoa eta eraginkorragoa izan daiten Foru Aldundiagaz egin beharrekoetan, edozein ordenagailu edo terminalatik eta egunaren edozein momentutan.

Lehendakaritza Sailaren aurrekontuan haunditu egiten dira be barrikuntza publikorako programaren gastua eta suhiltzaileen zerbitzuko baliabideetarako programa.

Gaur barikuan hasita eta datorren martitzenera arte Foru Diputatu jaun-andreak batzorderatu egingo dira Batzarkide-Taldee azaltzeko bakotzak bere Sailaren aurrekontuaren gora-beherak, hain zuzen be joandako azaroaren 19an Batzar Nagusietan



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

aurkeztutako aurrekontuan agertzen diranak. Behin batzorde-batzarrok eginda, Batzar Nagusietako Mahaiak zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabalduko dau. Hurrenkera honetan izango dira batzorderatzeak:

Astlehenean, azaroak 26an

- 09:30. Gizarte Ekintza
- 11:30. Ingurumena
- 12:30. Ekonomia Sustatzea

Martitzenean, azaroak 27an

- 09:30. Nekazaritza
- 11:00. Kultura
- 12.30. Herri Lanak eta Garraioak



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## Nota de prensa

---

# Hacienda y Finanzas y Presidencia inician en Juntas Generales las comisiones informativas del proyecto de presupuestos de 2013

**Bilbao, 23 de noviembre de 2012.**

El Diputado de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, y el Diputado de Presidencia, Juan María Aburto, han protagonizado hoy en la sede de Juntas Generales de Bizkaia las dos primeras comisiones para informar de las cuentas asignadas en el Proyecto de Presupuestos de 2013 a cada Departamento de la Diputación Foral. La primera de las comisiones ha correspondido al Departamento de Hacienda y Finanzas, y ha estado centrada en su primera parte en los presupuestos de toda la Diputación Foral de Bizkaia, según el proyecto aprobado el pasado 15 de noviembre en Consejo de Gobierno extraordinario.

El Diputado Foral de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, ha sido el encargado de explicar a los grupos con representación en Juntas Generales dicho proyecto de presupuestos generales de Bizkaia para el ejercicio 2013 que, según ha explicado, será nuevamente “duro y de ajuste”, aunque con prioridades como la acción social, la generación de empleo y la inversión pública. La cifra total (compromisos y gestión propia) asciende a 6.578,4 millones de euros, un 4,3% menos que el ejercicio 2012.

Dentro de este capítulo hay que subrayar, según Iruarrizaga, el importante incremento del pago del Cupo, con 406,5 millones de euros, un 81,2% más que en 2012, y las Aportaciones al Gobierno Vasco con 3.985,7 millones de euros, que suponen una bajada de un 7,8% con respecto al ejercicio anterior. También hay que señalar la partida de Juntas Generales con 7 millones de euros, que ha subido debido a que el pasado año contaba con remanentes, y la destinada a Financiación Municipal con 743,4 millones de euros, un 6,3% menos que en 2012. Por Departamentos, Acción Social, Promoción Económica y Obras Públicas y Transportes son los que más peso adquieren (el 78,3%).

Pese a la reducción de 123 millones de euros, tal y como anunció el propio Diputado General, la actuación foral girará en Bizkaia en el próximo año en torno a cinco grandes prioridades: el rigor económico y la estabilidad presupuestaria, sin aumento del endeudamiento; la acción social, que garantice la calidad de vida de las personas; la creación de empleo, con especial atención a nuevos mercados y apoyo pymes, autónomos, emprendedores y jóvenes; el mantenimiento de servicios públicos básicos; y la inversión en Obra Pública como motor de regeneración económica, incluida la finalización de proyectos estratégicos y la continuación de las actuales obras.

Asimismo, dentro de las medidas de ajuste el diputado ha recordado: la congelación salarial, la no emisión de nueva deuda pública, la actualización de tasas y precios



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

públicos en un 2% y la finalización de obras con proyectos estratégicos como el Campus UPV en San Mamés (13,5 millones de euros) y la ampliación del Palacio Euskalduna (10 Millones de €).

## CUENTAS DEL DEPARTAMENTO DE HACIENDA

En una segunda parte de la comparecencia, Iruarrizaga ha adelantado también el presupuesto asignado al Departamento de Hacienda que asciende a 122.970.515 euros. Entre otros proyectos destacan el derribo de la antigua Escuela de Ingenieros de la Casilla en Bilbao y las obras de San Mames Barria. A preguntas de Asier Arana, portavoz de Bildu, el Diputado de Hacienda y Finanzas ha confirmado la participación de la institución en este proyecto, de acuerdo con el compromiso adquirido en su momento con el resto de socios de la sociedad San Mames Barria.

## PRESUPUESTOS DE PRESIDENCIA

Por su parte, el Departamento de Presidencia de la Diputación Foral de Bizkaia dispondrá en 2013 de un presupuesto de 25, 3 millones de euros, según ha explicado su responsable, Juan María Aburto, en una comisión posterior.

La mayor parte de este presupuesto está destinado a dar servicio a otros departamentos forales (parque móvil, servicios jurídicos o formación de personal), así como a asesorar a ayuntamientos de Bizkaia, al parque de bomberos y a la modernización de la administración, con especial atención a la implantación de la administración electrónica.

A pesar del descenso del presupuesto disponible para 2013, ocho millones de euros menos, la mejora y la modernización de la administración sigue siendo una prioridad, según ha subrayado Aburto, “porque de su buen funcionamiento depende el servicio que se da a la ciudadanía”.

En este apartado, se mantiene una partida destacada para seguir implantado las nuevas tecnologías en la administración, para lograr una relación más fluida y eficaz con la ciudadanía, facilitando las gestiones ante la Diputación Foral desde cualquier ordenador o terminal y en cualquier momento del día.

El presupuesto de Presidencia también aumentará el gasto en el programa de Innovación Pública y en los recursos para el parque de Bomberos del territorio.

## EL LUNES SEGUIRÁN LAS COMISIONES

Desde hoy viernes y hasta el próximo martes, día 27, los diputados y diputadas forales irán compareciendo separadamente en comisión para explicar a los grupos junteros las



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

líneas generales de actuación de sus respectivos departamentos en base a las cuentas registradas en la Cámara vizcaína el pasado día 19 de noviembre. Estas sesiones serán el paso previo para que la Mesa del parlamento vizcaíno abra después el periodo de presentación de enmiendas. El orden de las comparecencias para la próxima semana ha quedado establecido de la siguiente forma:

Lunes, 26 de noviembre

- 09:30 horas. Acción Social
- 11:30 horas. Medio Ambiente
- 12:30 horas. Promoción Económica

Martes, 27 de noviembre

- 09:30 horas. Agricultura
- 11:00 horas. Cultura
- 12.30 horas. Obras Públicas y Transportes